

EDADETUENTZAKO ZERBITZU SOZIALEN ETORKIZUNA

Ongintzaren apustua da edadeko senideak dituztenei laguntza eta preparazioa eskaintzea

■ Laguntza era askotakoa izan liteke: edadeko pertsonak nola zaindu, laguntza materiala, laguntza psikologikoa eta abar ■ Ongintzak jendez beteta ditu orain eskaintzen dituen gizarte zerbitzu guztiak.

GIZARTEA zahartu ahala geroz eta pisu haundiago hartzen ari dute adineko pertsonak zaintzeko zerbitzu sozialek. Gaur egunean 3.500 hernaniar inguruk 65 urtetik gora ditu. 10 urte barru, berriz, 5.000 inguru izango dira, % 20, eta kopuru horrek haunditzen segiko du.

Informatu eta lagundu

Ongintza Patronatuak edadeko pertsonen asistentzia egokia emateko zerbitzu asko ditu: Sandiusterriko zaharren egoitza, eguneko zentroa, etxebizitza tutelatuak, etxez etxeko zerbitzua eta abar. Baina, zerbitzu horiez gain, edadeko pertsonak dituzten senideen laguntza-erreferentzia izan nahi du.

Ongintzak zer laguntza klase eman lezakeen? Era askotakoa. Bat informatzea da, jendeari adineko senideak nola zaindu erakustea: garbitasuna nola egin, ohean denbora askoan badago zauriak ez sortzeko zer egin, eta abar.

Bigarrena da, laguntza teknikoa ematea: aulki gorpildunak utzi edo lortzen lagundu, *taka-takak*, gruak eta abar. Edadeko pertsonak bizi behar duten etxean laguntza teknikoa serbizio haundikoa da. Ahal bada komeni da gainera etxea ondo ekipatzea: ohe mekanikoak jarri, bainerak kendu, helduleku eta guztiko komunak jarri eta abar.

Beste laguntza mota bat da



Hamar urte barru hernaniarren % 20 inguruk 65 urtetik gora izango ditu.

pertsona bere azkenetan dagoenean nola zaindu eta nola jokatu erakustea. Horrek asko arindu lezake azkenetan dagoenaren trantzea eta baita hura zaintzen dagoenarena ere.

Azkenik, Ongintzak laguntza psikologikoa izateko aukera ere eskaini nahi die adineko pertsonak zaintzen dituztenei, pertsona asko nekatzen duen lana izan litekeelako.

Oraingo zerbitzuak topera
Gaur egunean, zuzenean 300 hernaniar baino gehiagok jasotzen du zerbitzu sozialek. Bat. Ia denak topera daude, eta batzuetan jendea zain dago: Sandiusterrin sartzeko,

etxez etxeko zerbitzuren bat jasotzeko eta abar. Aurrera begira, etxez etxeko zerbitzua da oraindik jende gehiagorengana iristeko aukera ematen duena, horretarako diru partidak haunditu beharko badira ere. Sandiusterrin haunditzeko asmoa badago: orain 109 pertsona daude eta 120rentzat izango luke lekua. Hala ere anpliazioak jende gehiagorentzat lekua izatea baino, daudenak baldintza egokiagotetan egotea ekarriko du.

% 15engana iristea helburu
Gipuzkoako Foru Aldundiak markatzen dituen pauten arabera, helburua da 2010ean zer-

bitzu sozialek 65 urtez gorakoen % 15 kubritzea. Alegia, Hernanin 500 pertsonengana iristea. Gaur egunean, Hernanin du ia eskualdeko portzentaiarik altuena eta % 10era iristen da. Eskualdea, berriz, batez beste % 7an dabil. Oraindik, beraz, koska haundia da, baina, bide horretan egingo da lan. □

■ FUTBOLA

Hernani 4garren postuaren bila

HERNANIKO futbol taldea joku bolada onean da, eta azken emaitzek ere nabarmen uzten dute hori. Denboraldi hasieran azken postuetan ibiliatik 5garren da dagoeneko, 38 punturekin. Gaur Pasaia taldearen kontra jokatuko du. Pasaiko taldea laugarren da 39 punturekin: aukera ezin hobea aurrea hartzeko. Gaur 16:00etan, pasaiko Molinao zelaian. □

■ ESKUBALOIA

Hernani lider izaten jarraitzera

PARTIDU gogorra jokatuko dute gaur, duda haundirik gabe, Elgoibar eta Hernanik. Bi taldeak lehen postuan dira puntu berdinekin. Gaur irabaztea garrantzitsua da, liga goiko muturrean bukatze ezker. Partida gaur jokatuko da, 19:00etan kiroldegian. □

‘AEK TXOTX’ GAUR

Artisau azoka, bakailo lehiaketa eta sagargotegia

AEK-k urteroko AEK-txotx jaia ospatuko du gaur Hernanin. Egun osoko egitaraua izango du festak: goiz eta arratsalde artisau erakusketa egongo da Gudarien plazan; 17:30etan bakailo txapelketa egingo da Tilosetan eta 20:30etan 1.700 lagun afaltzera joango dira inguruko sagardotegietara. Gauean, Laiotz taldea eta DJak karpan.

Maite Iribarren Kinesologa

TRATAMENDU:

- ESTRUKTURALAK (GIHARRAK, ORNOAK, ARTIKULAZIOAK...)
- PSIKO-EMOZIONALAK
- KIMIKO-NUTRIZIONALAK
Juan de Urbietako 7 - 6.C
Tel. 943 553 948 - HERNANI

KINESIOLOGIA

ZER DA? Edozein lesio, oinaze edo desorekaren jatorria aurkitu eta tratatzea ahalbidetzen duen sistema da.

NOLA? Test-muskular sentziloen bidez, pertsonaren gorputza eta barne-arazoak komunikatzen ditu.

Pertsona, bakarra eta diferentea den neurrian, tratamenduak ere bakoitzaren behar eta nahietara egokitzen dira.

**Antziola-Motor**
ZERBITZU OFIZIALA
HILABETE HONETAN 500 - 1200 EURO ARTEKO DTOA
SEGUN ETA ZEIN MODELOETAN.
Zatoz eta zerorrek ikusi gure eskaintzak.
ANTZIOLA AUZOA 12 - HERNANI - TFNOA. 943 55 57 72
Ordutegia: ASTEAN ZEHAR 9-13 ETA 16-20 - LARUNBATEAN 10-13



**Urduin**
Poltsa, lepoko, pitxi, lurrin eta abar
MERKEALDIETAN GAUDE
URDIN Osagarri Denda
Montebideo kalea 1
(EPO eta atletismo pista artean)
- HERNANI -

**Telemar**
ITXASTELE S.L. Telyco denda
Elkano 13, 943 33 26 00

ESKAITZAK
kotxerako osagarriak
antenak
esku libre fijoak
instalazio gabeko
esku libreak
soproteak

ONE TOUCH 311
Kontratuarekin
102,11 euro.
PACK ACTIVA
173,90 euro
(30,05 deietan).
Bibratzailea, Wap,
ALCATEL logoak, alarma...

BOLEIBOLA -Liga autonomikoa-



Talde honek ez du Ligako partidu bakar bat ere galdu. Errez esaten da!

Hernani ia Ligako txapeldun, gaur kiroldegian irabazten badu

■ Saikapenean bigarren dagoena izango du kontrario: UPV-Bizkaia ■ 16:30etan.

HERNANIKO boleibol taldeak sekulako marka jarri lezake gaur arratsaldean: 15 partidu segidan irabazi eta ia Liga erabakita utzi. Hernaniarrek UPV-Bizkaiaren kontra jokatuko dute, saikapenean bigarren dagoen taldearen kontra.

Aurreko astean hirugarrenari irabazi zion eta orain bigarrenari irabazten badio, Liga Hernanira etorriko da. Oraindik 7 partidu falta dira liga bukatzeko, baina, Hernanik 3 partiduko aldera daramakie bizkaitarrei.

Igoerako play-off-ak
Hernaniarrek iaz ere Ligako txapeldun gelditu ziren. Gero Lehen mailara igotzeko play-off-ean huts egin eta hortxe bukatu zen Lehen mailan jokatuko ametsa. Aurten dute bigarren aukera. □

Udan Saharako umeak etxean hartu nahi dituenak Biterira jo

■ Otsailaren 12 arte apuntatu liteke ■ Biterin, goizeko 09:00etatik 14:00etara.

AZKEN urteetan bezala deialdia egin du udalak, saharako umeak uda pasa etxetan hartzeko. Argeliako kanpamentuetan dauden Saharako umeak etortzen dira urtero, hemengo bizimodua zer den ezagutzera. Saharako herriak Marruekoekin tirabira gogorak ditu, eta ume hauen bizimodua gatazka horrek baldintzatua dago.

Uztail eta abuzturako
Iaz 8tik 13 urte bitarteko 15 ume izan genituen Hernanin, eta aurten ere adinsu horretakoak dira etortzekoak. Uztaila eta abuztua egingo dituzte gurean.

Interesatuak Biteri kultur etxetik pasa beharko dute, hilaren 12a baino lehen. Deialdia 8-12 urteko umeen gurasoei dago zuzendua. □



Iaz etorritako bi gaztetxo.

KIROLA - ASTEBURUKO PARTIDUAK-

FUTBOLA	TALDEAK	PELOTA	PELOTARIAK
Gorengo maila	Pasaia-Hernani	Euskal H. Txap	
Emakum. liga.	Hernani-Alde Zaharra	Eskuz banaka kad.	Arrieta / Gure Txoko
1. Erregionala	Hernani-Azkuene	Eskuz binaka Jubenil.	Alvarez-San Sebastian / Altsasu
Gazteak. L. Naz.	Hernani-Reala	Paleta goma jub.	Burutaran-Valero / Auritzberri
Gazteak Ohor.	Hernani-Bergara	Paleta goma jub.	Hoz-Lujanbio / Auritzberri
Kadet. Ohor.	Hondarrabia-Hernani	Paleta goma	Manzisor-Martinez / Intxaurren.
Kadet. 2.maila	Hernani-Aretxabaleta	Udaberri Txap	
Haurrak Ohor.	Hernani-Aitzgorri	Paleta larruz	Lizeaga-Lujanbio/Altza
ESKUBALOA	TALDEAK	Eskuz binaka kad	Zurriola/Apaolaza-Zurutza
Euskadiko L.	Hernani-Elgoibar	Gip. Trikete Txap	
ERRUGBIA	TALDEAK	Eskuz banaka kad.	Xabi Erdozio-Endika Ramos
Senior A. 1.maila	Bilbo-Hernani	Eskuz binaka haundi	Alde zaharra/Gaskon-Aizpurua
Infant. G. Liga	Ordizia-Hernani	Eskuz banaka kad.	Ramuntxo-Jon Apaolaza
		BOLEIBOLA	TALDEAK
21 urtez azpiko kategorietako txapelketak jokatuko da asteburuan Valentzian eta hernaniarrek han izango dira		Hernani-UPV-Hernani	
		Hernani-Leizaran	



Ixkinean sua egin eta kaldereroak borobilean eseri ziren, taldeka.

Atzo kalderero gazteak eta gaur nagusiak Hernanin barrena

HUNGARIATIK ez baina Meabetik 420 kalderero inguratu ziren atzo Plaza Berrira. Musikaren erritmoan paderak jo, kantatu eta artza paseatu zuten txundituta begiratzen zuten gurasoen aurrean. Eguraldiak ere ez zuen aitzakiarik eta

festa primeran joan zen.

Gaur, Elur-Txorik

Gaur Elur-Txori elkarteko kaldereroen txanda izango da. Gaueko 20:00etan afaria izango dute eta ondorenean irtengo dira kalera.



Helduenek txaloekin lagundu zioten musikari.

ZINEA BITERIN

'Harry Potter' ume eta helduentzat

Gaur 16:30, 19:30 eta 22:30; eta igandean 16:30 eta 19:30.

HERIOTZAK

Modesto Arribillaga Juanena
Ostegunean hil zen 86 urte zituela.

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK

☛ Taxiak: 943 550093
☛ Udaltzaingoa: 943 333288
☛ DYA: 943 464622
☛ Autobusak: 943 556662
☛ Anbulatorioa: 943 557750
☛ Jokalari anonimoak 943 331103

☎ FARMAZIAK

☛ Egunez: Bilbao Sagastiberri Urbieta 7
☎ 943 552941
☛ Gaez: Arzallus Andoain. Plazaola 17
☎ 943 591514

IRAGARKI MERKEAK

Klase partikularak ematen ditut. DBH arte asignatura guztiak. Interesatuak deitu: 636-170817 (Itzalai).

Etxeko lanak egin edo/eta umeak eta edadetuak zainduko nituzte. Harremanetan jartzeko: 652-743666

Hernaniko Kronika

Zure publizitatea
hemen
943 330 899



Igande eta jai egun guztietan dantzaldia

IGANDE honetan
IZOTZ taldearekin.

19:30etatik aurrera
OIALUME AUZOA - 943 55 29 38